

## 2. BLOKEA: IDEIATIK EGITASMORA



[www.e\(rrr\)opak.com](http://www.e(rrr)opak.com)

### 1. BALIO PROPOSAMENA:

Apurtutako, txiki gelditutako edota gustatzen ez zaizkizun arropak enpresa honetara bidaltzen badituzu, enpresa honek eraldatu egingo ditu: adibidez, praka batzuetatik kamiseta batera. Erabiltzen ez ditugun arropa asko ditugula ohartu ginenean bururatu zitzaigun ideia hau.

→ Eraitza gustoko ez baduzu edo ez baduzu nahi, enpresak berak ere saltzeko aukera ematen du. Salmentaren prezioaren zati bat emango dizute saldutakoan. Beste zatia enpresarentzat izango da.

→ Eraitza gustoko baduzu, eraldaketa horrek balio izan duena ordaindu beharko duzu.

Ondorioz, arropa berria erosi beharrean arropa erreziklatzean planetari laguntzen diogu.

Duen balio mota kualitatiboa da: Bezeroak duen ikuspegia kontuan hartu eta diseinuan oinarritzen da eta bezeroei zerbitzu bat eskaintzen diegu beraien erropekin zer egin ez dakiten momentuetarako.

Balorea sortzen dituen elementuak:

#### - **Diseinua (moda sektorean garrantzi handia du):**

Diseinatzaile profesionalak diseinatuko dituzte erropen eraldaketak, eta diseinu bakoitza bakarra izango da.

#### - **Marka/statusa:**

Hasieran diseinua ez da hain garrantzitsua, guk eraldatutako erropek ez dutelako etiketarik, baina geroago sare sozial eta bezeroei esker gero eta ezagunagoa bilakatuko da

**ERALDATU** ✂

**e(rrr)opak**

Be(r)erabili, be(r)ziklatu eta mu(r)ritzut!!

**DENDA** 🛍



**e(rrr)opak**

Be(r)rerabili, be(r)ziklatu eta mu(r)riztu!!

- **Prezioa :**

Arropak berrerabili eta erreziklatu egiten direnez, prezioa askoz baxuagoa da beste arropa bat erostea baino. Produktu berri bat erostean produktu horren materiala+lana ordaindu behar da. *Errropak* enpresan arroparen bat eraldatu nahi ezgero, lana da soilik ordaindu behar dena, materiala jada bezeroak ematen baitigu.

- **Eskuragarritasuna:**

Prezioa baxuagoa den unetik, zerbitzu hau guztientzat eskuragarria bilakatzen da. Gazteek zein adin bateko jendeak onar dezake, baita dirutik justu dabilen edonork. Online zerbitsua ez duen edota gustatzen ez zaion pertsona batek ere eskuragarri izan dezake, denda fisikoa badaukagulako, eta aldiz, online erostea erosoago edo nahiago duten pertsonentzat ere online erosteko aukera dute.

- **Lana erraztea :**

Bezeroari lana murrizten diogu, diseinua zein eraldaketa gure esku daudelako. Arropa entregatzea edo aldatzea du zeregin bakarra, eta diseinu espezifikoren bat nahi izanez gero horretaz guri informatzea. Gainera, emaitza gustuko ez izanez gero, enpresa arduratzen da produktua saltzen, ez zara zertan produktuarekin geratu behar.

- **Berrikuntza:**

Ez daude gure inguruan enpresa honen berdinak direnik, eta beraz berrikuntza bat da.

- **Pertsonalizazioa**

Bezeroek haien produktuetan zein aldaketa egin aukeratzeko askatasuna dute. Bestalde, arropa bakoitza bakarra izango da; hau da, ez dira hainbat produzitzen, bezero bakoitzak arropa desberdinak ekarriko dituelako eta ondorioz produktuak ere desberdinak izango dira.

- **Berrerabilera eta planetarekiko kontzientzia:**

Gaur egun gero eta garrantzia gehiago ematen diogu planeta zaintzeari. Gure enpresan, 3 Bak kontuan hartzen ditugu: beheratu, birziklatu eta berrerabili.

→ Beheratu: Etxean ditugun erropekin egiten dugunez lan, kontsumismoa beheratu egiten da

→ Birziklatu: Jada erabiltzen ez diren arropak birziklatu egiten ditugu jantzi daitekeen arropa baten bilakatuz

→ Berrerabili: Jantzi daitekeen arropa baten bilakatu ondoren bezeroak produktu hori berrerabili egingo du